Hasiera-hasieratik hezkuntza bateratua izan dute helburu. Diagnostikoaz gain, orientazioa eta jarraipena dituzte xede. Banakako laguntza ematen dute. Haur bakoitzaren kasura egokitzen dira egitamuak haren eskola-jardunbide osoan zehar. Horrez gain, harreman estua izaten dute familiekin.

Lanean hasi aurretiko trebakuntza ikasle bakoitzaren baliabideen arabera egiten da.

Gizarteratzea, haur bakoitzaren burujabatasun-maila gorena lortzea dute helburu, bizi behar duten gizarte-ingurunera ahalik eta ondoen egokitu daitezen.

Esan daiteke, beraz, BBKko Hezkuntza Berezirako Institutua, Euskal Herriak urritasunen arloan duen laguntza-zentrorik aurreratuenetakoa dela.

Euskal Herriak urritasunen arloan duen laguntza-zentrorik aurreratuenetakoa dela

ERREKA
LOND
ETXEA

Uruneko menua, arduratsua menu berria, kanta, egurren barakak, janariak, fruituen barakak.

Arizaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tlfno.: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

Cataluña

Pozgarri
Hamburguesa

Berehizteak
Hamburguesak
Hautu kumartak
Gazak
Undasapiku barakak

944 541 599
Gentilak Artoia, 4 • 48100 DEUSTO

Haurko menua, menu berria, dastardak menua, kanta, bestelakak, gazak, porak, gazak

ZIRIKADA JATETXE

GAZTELUMENDI PLAZA, 1 48160 DEUSTO
TEL. 94 454 50 45

HEZKUNTZA BEREZIRAKO IKASTETXEA

Eskola garaian (4tik 20 urte bitartean) dauden Bizkaiko Lurralde Historikoko adimen-ezindu guztientzako doako irakaskuntza.

Zentroak pedagogi terapeutikorako 15 gela dauzka. Gela horietan, aukera daukate umeek eduki ditzaketen logopedi, entzumen eta hizkuntz arazoak lantzeko. Ingurune horretara egokitzeko trebetasunak lantzeko etxe-tailer bat ere badute, ikasleek bazkariak prestatzen, etxea garbitzen eta gobernatzen... ikasten dute.

Horretaz gain, Olako zentroak ikasleak lanean hasi aurretiko jardueretan trebatzeko zenbait tailer dauzka. Beraz, lantegi hauetan umeek alfonbragintza, aroztegia, zeramika, elektrizitatea, eskolako baratzeak lanak, informatika eta mekanika ikasteko aukera paregabea dute.

Kirola egiteko beta ere badute, izan ere, gimnasia monitoare pare bat badira zentroan, estalitako zein aire zabaleko kirol instalazioetan kirola praktikatzeko. Gainera, umeak, monitoarekin batera, Sondikako udal igerilekura joan ohi dira.

Sarri askotan egin ohi dituzte eskolaz kanpoko egitarauak, ingurunea ezagutzeko eta gizarte zein bizimodu praktikorako jardueretan trebatzeko (dirua erabiltzea, bidaia, errepide-segurtasuna,...).

Esan beharra dago, ikastetxe berezi honetako langileek harreman estua bezain etengabea dutela familiekin, aholkuak eta orientazioa emateko orduan. Familiekin elkarlanean aritzen dira gizartean bizitzeko trebetasunak garatzeko batera egin beharreko egitamuak zehazteko.

Irakaskuntzan badute kezka nagusirik: hezkuntza egitamuak haur bakoitzaren erritmora moldatzea, bere eskola-jardunbideko etapa guztietan zehar.

EGOITZA - BARNETEGIA

Bizkaiko Lurralde Historiko osotik datozen erabiltzaileak hartzen ditu zerbitzu honek.

Adimen-gaitz larriak (autismoa, psikosia, nortasun-arazoak...) edo izaera zein jokabide arazo larriak dituzten haurrei eta nerabeei erabateko laguntza ematea du helburu. Horretaz gain, aldi baterako edo behin betiko hartzen ditu batere mesedegarriak ez diren gizarte zein famili baldintzetan bizi diren haur elbarrituak.

BBK-k diruz lagundutako zerbitzu honek 12 gazte hartzen ditu bere baitan eta umeak Ola ikastetxean bertan eskolaratzen dira. Honek, haur bakoitzaren banakako tratamendua, mediku, psikiatri, psikologi eta gizarte alderdiei dagokienez lan ezin hobe egitea ahalbidetzen du, familiekiko harremana sendotuz.

DIAGNOSTIKO ZEIN ORIENTAZIO ZERBITZUAK

Zerbitzu hauek ere doakoak dira eta Bizkaiko haur eta gazte guztiei zuzenduta daude.

Psikiatri, psikologi eta psikopedagogi kontsulta anbulatorioak daude elbarrituak diren eta ez diren haur eta gazteentzat.

Izan ere, adin haueko arazo psikiko eta pedagogiko guztiak barne hartzen dituzte: eboluzio eta garapen arazoak, heldutasun arazoak, esfinterren kontrolatzeko arazoak, elikadura-ohiturei buruzko arazoak, jarrera eta jokabide arazoak, nortasun arazoak, psikosia, neurosia, fobiak,...

2002
urte oso bat aurrezteko

EROSLE //

LARRABETZUKO EROSLE.
Iturrizko, 2-3. Larrabetzu
Tfnos.: 94 455 84 33


**LIBRERIA
SONDIKA
LIBURUDENDA**

ARTE IDERRAK ESKULANAK, E.A.


JESUS MANUEL LANDA ANTOLIN

Fotokopiak, kuadernaketa, plastifikatuak,
prentsa, aldizkariak, liburuak,
papergintza eta eskularrak

Mikel Zarate, 2 - Tel. / Faxa: 94 453 16 77
48190 SONDIKA (Bizkaia)

**HARATEGIA
J. ELORRIAGA**

Etxeko berezitasuna: bertoko tikela



Iturrizko, 7 biluzi - 94 455 89 41 LARRABETZU

A black and white photograph of two women sitting at a table. The woman on the left, with short dark hair, is smiling and looking down at an open book. The woman on the right, with long dark hair and bangs, is smiling and looking towards the camera. A small bottle is on the table. The background is a textured wall.

Zamudion izan genduzan emakumearen eta baserriaren etorkizunaren ganean berba egiten. Nahiz eta kale-tarrok sarritan hirugarren munduagaz eta urrineko parajeakaz lotzen dogun borroka eta esaldi sinpatikoa izan, Euskal Herritik bertotik haxe izan zan bialdu euskuen mezu nagusia.

Guk esplotazioei lotuta egotea eskatzen gendun, baina nik ez dot txarto ikusten baserri handiak badira eta etxekoentzat bada. Auzoak bizirik mantentzeko modu bat be bada. Hori etxebizitzaren arazoagaz lotuta dago, eta egia da, batez be, herri txikietan urtenbide bat izan leitekela gazteentzat. Arazoak be badaukaz, zerbitzuak emon behar dira, tranpak egiten dira eraikitzeko, sarritan bigarren etxebizitzarako izaten da eta beste batzutan txaletak egiten dira nekazal gune baten eta integrazio eta nortasun galtze arazoak sortzen dira... Sakon aztertu beharreko gaia da eta gu horretan gabiltz.

AXORIERRI
Inmobiliaria

ZUHIRAGANDIK GELITEKIN DUGIZEN INMUEBLARIA
AHUEKUI ARITZA TANAZIOA
ALAIK ATZPAK ISKUALD ATZPAK
SALEROSKETAK
SINGULUR BILGAUHEN AGENTZIA

Renta Aloria, 2 MONTEKA DEUTXUA
147.100. 90.011 12.92 / 90.011 10.01
E-mail: axorierri@axorierri.com

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA

Behiak, gripe-izurriteen iturri?

Gizakietan gripea sor dezaketen birusen gordailuetako bat abelgorria izan daitekeela esan dute Londresen egin berri den albaitaritzari eta mikrobiologiari buruzko bileran. Erresuma Batuko albaitari-laborategien agentziako Ian Brown-ek zuzendutako taldeak gripearen genea atzeman du lehen aldiz abelgorrietan.

Mundu osoan hedatu zen azken gripe-izurrite larria 1968an gertatu zen. Birusak hegazti basatietan sortzen dira eta, uste denaren arabera, hegazti-aziendak edo txerriak kutsatzen dituenean bihurtzen da hilgarria. Beste gripe-barietate batek infektatutako zeluletan, gizakiak kutsatzea ahalbidetzen duten geneak hartzen dituzte birusek.


Orain, abelgorriaren birus sorrak gizakiak infektatzeko gai diren barietate moduan ager daitezkeela eman dute jakitera. Hala ere, ez dakite noiz sortu zen abelgorriaren birusa, ezta behetik behira kutsatzen den ala ez ere. Gainera, abelgorriaz gain, beste gordailu asko egon daitezkeela ohartarazi dute.

Urtero, birusaren azaleko proteinak lekuz aldatzen direla eta, gripe-barietate berriak azaltzen dira. Barietate nagusiak detektatu orduko, txertoak prestatzen dira. Baina animalietatik gizakira zuzenean kutsatzen diren birusak hain ezberdinak direnez, ez sistema immuneak ezta txertoek ere ezin diote aurre egin.

Barietate hilgarri horiek 30-40 urtetik behin azaltzen dira; beraz, hurrengo pandemia laster izango dela aurreikusten dute.

Aurreikuspen gehienek arabera, aurreko kasuan bezala, gripearen hurrengo pandemia Asiako hego-ekialdean sortuko da, han, hegazti-aziendak, hegazti basatiak, txerriak, azokak eta gizakiak nahasten baitira. Gripearen barietateak, gero eta gehiago, animalietan sortzen direla susmatzen dute iker-tzaileek.

Pandemiaren arriskua ekiditen saiatzeko, Europako eta Ekialde Hurbileko gripe-barietate ohikoenen azterketa genetikoa egiten ari dira (lehen Asiakoak aztertu zituzten). Gainera, birusari espezie batetik bestera pasatzea ahalbidetzen dion aldaketa genetikoak aztertzen ari dira. Informazio horrekin guztiarekin pandemia izan litekeenari aurre hartu eta txertoak prestatu ahal izatea espero dute.



Errementeri Kalea, 22
Tfno.: 94 453 57 54
Fax: 94 453 58 31
48150 SONDIKA (Bizkaia)

DIAPORAMAK

KONTINENTEETAKO PUNTURIK SAKONENAK

Pangea espedizioa

Josu Izlueta

Apirilaren 16an, martitzena

arratsaldeko 20:00etan

Zamudio Dorretxean

PUNTURIK ALTUENAK

Jose Ramon Agirre "Marron"

Apirilaren 23an, martitzena

arratsaldeko 20:00etan

Zamudio Dorretxea



LA
GA
TZU

ZAMUDIOKO
EUSKERA
ALKARTEA

**zamudion euskeraz?
hoba ez!**

SUTONDOAN:

Gaurko honetan Sutondoan Etxekoandre Taldea jatorku orrialdeotara. Alkarte kultural honek gaur bizi dau bere momenturik indartsuena, sortu zaneko 1992ko abendutik hona ia hamar urteko ibilbidea egin ostean. Hasikera baten 35 andrak osatzen eben taldeak 140 bazkide inguru dauka, antolatzen dabezan jardueretan egoten dan partizipazioa beti bardina ez bada be.

Testua: Fernando Larrondo

Arestian esan dogun lez, Derion sortu zan, bertoko andra batzuen kezka eta jakinminak behar dan moduan bideratze-ko. Derion hasi baina laster baten zabaldu zan Txorierriko beste herrietara, eta holan, apurka apurka, lezamar bat, zortzi zamudioztar, sondikar bi eta beste bi loiuztar osatzen joan dira, ehun eta hogeita zazpi derioztarrakaz batera gaur eguneko Sutondoan Elkartearen "plantilea".

Elkartearen Zuzendaritza Batzordetik esan jakunez - orain dala gitxi barriztu dan batzordea -, Derioko eta inguruko herrietako andrak erakarri gura dabez, ze holan euren aktibidadeek lortuko daben oihartzuna eta garrantzia gorantza joango dala uste dabe. Bete behar diran baldintzak oso errazak dira: Txorierrikoa izatea eta norbere herrian andra-elkarterik ez egotea.

Izan be, elkarte eratu eben andreen berbetatik zera atara daikegu, herri berekoak izan eta alkar ezetuten ez eben andrak batzeko eta egoera berdinean egozan andrakaz hartuemonak eukiteko balio



Baserritarren Alkartea Lezama S. Coop.

Aretxalde, 21 BIS PENTSU NATURALAK
48196 LEZAMA
☎ 94 455 60 16
e-mail: lezama@fiae.org
Bazkideak: 144



**ASADOR
ARAMENDI**

EZKONTZAK BATAIOAK BANKETEA JAUNARTZEAK

Arteaga auzoa, 119
Tfnua.: 94 452 11 58
ZAMUDIO


 iteopaindegia
 salazkari kulturualeko hornontziak
 azpiekintza
 hornontziak
 48940 LEIOA-BIZKAIA
 Tfnua.: 94 480 46 38
 Gailuak: 2.160.000

SUINOR COMPUTER S.L.
 Torrelarregiti Industrialdea-3 blokea-3. nabea-ZAMUDIO (Bizkaia)

BARAKALDO INFORMATIKA
 Miranda Elorbidet 3
 48902 BARAKALDO-BIZKAIA
 Tfnua./Faxa.: 94 4781643
LEIOA INFORMATIKA
 Iparragirre Elorbidet 58
 48940 LEIOA-BIZKAIA
 Tfnua.: 94 4804638
 Faxa.: 94 4807145
 e-mail: rocco@arrakis.es

ANDRA HONEEKAZ, ATSEDENIK EZ

izan daula alkarteak, bai eta aisialdia hobeto aprobetxatzeko eta andra/pertsona modura hazteko be. Alkarteko batek dinoanez, eurena jardunbide arrakastatsua izan da, eta hau ahoz aho zabaltzen joan da azkenengo urteotan.

Baina, zertan emoten dabe andra honeek euren denporea?

Irakurle jaun-andrea, ez da laburra aurreko itaunak eskatzen dauan erantzuna. Antzerkia, euskera eskolak, abesbatza, bolilloak, artisautza, biajeak, jostea, andre-en arazoakaz zerikusia daukien berbal-diak... Orain dala gitxi, martiaren 8an, bere urteroko bazkari ofiziala egin eben. Beste batzuk be egiten dabez, zelan ez, baina egun horretakoari garrantzi handia emoten deutsie.

Baina, duda barik, teatroa da eurek burututako aktibidadeen artean denpora gehien kenduten deutsena. Azkenengo hiru urteotan beste horrenbeste antzezlan prestatu eta aurkeztu dabe jentearen aurrean.

Abesteak be hainbat buruko min emoten deutse, honen adibide zezeilean herri-rik zehar egindako Santa Agedako kanta.

Bestalde, euskera eskolek hiru urte daroe bizirik. Hasieran, hogeita bost ikasle izena emon baebeu be, gaur hamahiru andrak jarraitzen deutse euskera ikasteari. Ez dago, ez, bape txarto.

Euren esanetan, alkarteak burutu dituan ekintzek Derion euki dabe oihar-

tzun edo indar gehien. Zentzu honetan, aitatzen dabe Derioko jaietan gero eta partizipazio handiagoa hartzen doazela, bai prestaketeen zein kaleko jai giroan, sanjuanada antolatzean, karnabaletan...

Hor dogu, atzerantza denpora lar bota barik, Derion egin zan Euskal Ezkontzean euki eben presentzia.

Hau guztia irakurri ostean, argi lotuko jatzun, irakurle, Txorierriko andreen potentziala, onerako zein, batek daki, txarrerako.

Amaitzeko, gauza bi. Lehenengoa, euren egoitzea Eskola Publikoetako gela

baten dagola, Institutuko zuzendariari esker lortu ahal izan dabena. Behin eta barriro eskatu deutsie Derioko Udalari lokal bat itziteko, baina oraindino eskaera honek ez dau jaso aldeko erantzunik. Dana dala, eta hau argi geratu daitela gura dabe, dirulaguntzak emon izana eskertu behar deutsie Derioko Udalari, bai eta Emakunderi be.

Bigarrena, eta ohiturari jarraituz, datozen hilabeteetarako (martia eta apirila) aktibidadeen egitaraua erakutsi gura izan deuskue.



Herritik zehar ibili ziren kantatzen Santa Ageda egunean

ZAMUDIO DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA
CONSEJO REGULADOR DE LA ACTIVIDAD DE LUGAR DE VIVIENDA
HABITAJE EN LA ZONA DE VIVIENDA
Santa Mami, 1
Tel: 94 454 18 06
Fax: 94 454 17 11
C/JOSE ZAMUDIO (Bakarra)



SANTI MAMI
ALCALDIA
Tel: 94 454 18 06
Fax: 94 454 17 11

IEZALA

ZARRATU ETA
EGURREZKO ERAIKUNTZAK
TRABESEN SALMENTAK

☎ 659 18 68 03 - 670 04 09 07
(ZAMUDIO)



**CANTEROS
TRIKUHARRI**

COLOCACION Y TALLA DE
PIEDRA NATURAL
RESTAURACION DE CASERIOS

Unbetxiki, 3
Tlfno. mobil: 670 51 80 98
48180 LOIU (Bizkaya)

JANE MOLONEY-REN ZALDITEGIA



Jane Moloney 1986an heldu zen Irlandatik Bilbora, bere ekitazio-eskola sortu eta urteen buruan pilotutako jakintza praktikan jartzeko asmoa hartuta. Lezaman jarri zen bizitzen eta Bizkaiko lehenengo irakaskuntza zentroa ireki zuen. Horrela bete zuen bere amets handienetariko bat: zaldiaren munduari lotutako negozio bat martxan jartzea. Berak dioen bezala: "Aukera etorri zenean, ez nuen birritan pentsatu eta buru-belarri ekin nion".

Zergatik erabaki zenuen Lezamara etortzea?

Bilbora etorri nintzenean, 500 urtetik gorako baserri bat alokatzeko aukera izan nuen Lezaman; bertan zaldi eskola jartzeko baldintzak oso onak ziren eta herri honetan bizitzen jartzea erabaki nuen. Kontuan hartu behar da, mundu honetan hasi nintzenean, inguru honetan ez zegoela zaldi-kultura handirik eta 16 urteen buruan harro esan dezaket gero eta jende gehiago animatzen dela zaldiaren munduarekin harremanetan jartzen.

Zein zerbitzu eskaintzen dituzu zeure eskolan?

Lezamako Zaldi Klubean jarduera bat baino gehiago egiteko aukera dago: asteburuetan ibilaldiak egitea (horretarako hitzordua eskatu behar da aurretik), ekitazioari buruzko urtebeteko has-tapen ikastaro osoak, udako ikastaro trinkoak...

Zenbat ume daukazu eskolan?

Zaldiz ibiltzen bakarrik asteburuetan etortzen diren umeak kontuan hartuta, 5etik 10 urte bitarteko 60 bat ume daude izena

emanda. Baina horiez gainera, jende asko etortzen da asteburuetan edo egun puntaletan goizez zaldiz ibiltzera, denbora pasan.

Zure eskolara doazen umeak federatuta daude?

Sarritan edo beti etortzen diren ume guztiak federatuta daude Euskal Hipika Federakuntzan. Esan beharra dago zentro hau oinarrizko irakaskuntza zentrotzat hartzen dela eta umeak oinarrizko ekitazio ezagupenak ikastera etortzen direla. Adinean gora egin eta kategoria gainditzen dutenean, klub hau utzi eta beste klub edo disziplina zehatzago batera igarotzen dira: zaldi-hezteak, saltoak, pasuak edo raid delakoa.

Zure ustez, zenbat denbora behar izaten dute oinarrizko ezagupenak ikasteko?

Urte batean astean behin etortzen badira, nire iritziz, nahikoa da oinarria eurenganatzeko. Hala erem komenigarria da sarri etortzea, hau da, ganoraz etortzea, benetan ikas dezaten zaldiz ibiltzen eta zaldiaren mundua ezagutzen.

Giber Derio
MUNGIALDE, 11 - MUNGIARA BIDEA
☎ 94 454 07 01
LITORRI IKUSTERA, LE ZARA DAMUTUKO!

DOCUMENTOS CIBEL
KOPPLADI
TRASLOCATUAK - BANATZEKO TRENTADAK - BABAI FALTEUAK
DEBEJAMINATU PHOTOKOPIAK - INKUBIMONIA/BEAK
MANIPARK-ZORU TEKNIKAK (GORATUAK)
Lanpostuak: (94) 457 14 11 / (94) 457 13 95
KONTU ZAMARRAK (Kontuak): (94) 457 14 11

VIDEO-CLUB EL TRASGU
• DVD
• VHS
• PLAY STATION
• JOKOAK
• OPARI SALMENTAK
Iturrigano, 1 • Tel.: 944 710 156
48150 SONDIKA

Beste gai batera pasatuta, zein ordutan hasten da zure "lanaldia"?

Esan liteke haztegi honetan lan egiten dugunok bulego baten ordutegia daukagula. Txandaka ibiltzen gara, goizeko bederatzie-tatik arrastiko ordu biak arte eta arrastiko bostetatik iluntzeko zor-tziak arte. Asteburuetan ordutegia aldatu egiten da, izan ere, zapatuetan egun osoan behar egiten dugu, eta domeketan hama-rretatik ordu biak arte bakarrik. Zaldiz ibiltzen zenbat jende etor-zen den...

"Animaliarekin kontaktuan jartzea fasea gainditu ostean, irakaskuntza dator eta era jarraituan eta maitasu-nez lortuko dugu animalia eder hauekin gustura egotea"

Gogorra da zaldiak jagotea? ¿Behar handia ematen dute?

Mundu honetan bizitza osoa igaro ondoren, ez zait gogorra egiten zaldiakaz behar egitea. Ohituta nago eurekin behar egiten, euren gaixoeekin, gurariekin... Jende askok uste du gaitza dela ani-maliekin behar egiten, baina ez da horrenbesterako, beti ere beste edozein lanbidetzat hartzen baduzu, zeure ordutegia eta erantzukizunak betez...

Zein zaldi mota daukazu?

Era askotako zaldiak daukagu. Bertokoak, odolgarbien eta arabiarren arteko nahasteak... Ez daukagu arraza berezirik, guz-tiak daude bata bestearekin gurutzatuta. Garrantzitsuena da zaldi mantsoak izatea, gure ikasleen maila ez delako altua. Kontuan hartu behar da hona jende mota asko etortzen dela, hasi 40 kilo-ko umeengandik eta domekaz pasian datozen 100 kiloko nagusiak arte.

Zaldiz ibiltzen ez ezik zaintzen ere irakasten diezue umeei?

Asteburuetan etortzen diren umeak ederto batean pasatzen dute zaldiekin. Goiz osoa pasatzen dute gainean ibiltzen, eskuilaz garbitzen eta kortak garbitzen. Gainera, zaldiak hobeto ezagutze-ko eta, bide batez, lagunak egiteko, ona da lan horiek guztiak egi-tea. Era berean, garrantzitsua da animaliekin ohitzeko, ordu asko pasatu behar dira zaldiak ondo ezagutzeko.

Euren zaldiak dauzkan jenderik badago...

Badira familia batzuk, euren zaldia daukatenak, baina zaintze-ko korta egokirik ez daukatenak. Apopilo ekartzen dituzte. Guk ahalik eta ondoen zaintzen ditugu, jabeak datozenean, eurekin goza dezaten.

Kirol hau egiteko aparteko gaitasunik eduki behar da?

Il nondik ere ez! Hona nahi duen guztia etor daiteke, nahi due-nean eta aparteko gaitasunik eduki barik. Eskolan 5etik 65 urte bitarteko ikasleak daukagu. Edozein adinetan egin daitekeen kirola da, beti ere gorputzak eusten badio!!

Kirol segurua da?

Oso segurua da. Ekitazio irakasle egon naizen urte guztietan inoiz ez dut susturik izan. Argi dago arauzko soinekoekin eta kas-koarekin bazoaz, ez dagoena arrazoirik ezer jazoteko. Gainera derrigorrezkoa haiekin joatea.

Zein aholku emango zenieke, ekitazioan hasteko gogoia eduki arren, ausartzen ez direnei?

Mundu honetan sartzeko, lehenengo eta behin, kontaktua hartu beharra dago animaliarekin, lekua ezagutu behar da, baita jendea ere; horrela lortzen da guztura egoten. "Animaliarekin kontaktuan jartzea" fasea gainditu ostean, irakaskuntza dator eta era jarraituan eta maitasunez lortuko dugu animalia eder hauekin gustura egoten. Gainera, animalioi oso esker onekoak eta atse-ginak dira.





**C.D. HIPICO
LOS AMIGOS DEL CABALLO
DE LEZAMA**
Garaioltza, 184 - Tel 94 455 65 11
LEZAMA (Bizkaia)
C.I.F. G95056107
**IBILALDIAK ZALDIZ
APOPILOTZA
MAILA GUZTIAK IKASTAROK**

GARRAIOLARIA 

Miguel Angel Lokuc

Andra M^a, 19
LARRABETZU
Tinoa. 94 455 80 20

LIBURU DENA / PAPER DENA

 **ZAMUDIO**

Garbitor kalea, 5
Telefono / Fax: 94 462 29 10 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

**LEJARRRENE
JATETXEA**



GARAIOLTZA, 102 - TEL: 455 65 46
LEZAMA (BIZKAIA)

OKINDEGIA - BASTALEKUA

Aretxalde, 64
Ielt.: 94 455 50 36 4819611 /AMA

Sukaldaritza

Txipiroiak tintan

Osagaiak lau laguntzat:

- Garbitutako eta txikitutako kilo erdi txipiroi
- Tipula handi bat
- 2 tomate heldu handi
- Baratxuri ale bat
- Bezperako ogi gogor pusketa bat, xerratan moztua
- Urdaiazpiko on baten hezurra
- Txipiroi tinta (lau sobre)
- Arrain salda (litro erdi gutxi gora behera)
- Olio
- Gatza



Kazola batean olio jarri. Baratxuria bota eta ondoren, tipula txiki-txiki eginda eta urdaiazpiko hezurra. Frijitzen utzi. Beste eltze batean lau ogi xerra frijitu. Gorritzen utzi eta kazolan jarri. Tomatea eta ardo txuri pixka batekin nahastutako tinta gehitu.

Frijitzen utzi eta arrain salda pittin bat bota. Gatza bota eta egosten utzi ordu erdiz. Saltsa iragazi. Aldez aurretik betetako eta urre kolorea hartu arte olioaz salteatutako txipiroiak gehitu. Ordu erdiz txipiroiak saltsan egosten utzi. Txigortutako ogi pusketekin zerbitzatu.


Bilboko kanutiloak kremarekin

Osagaiak 4 laguntzat:

- hostorea (hojaldre masa)
- ahihori lodia (gorringoak, azukrea, bainila eta esnea)
- azukre mehea

Ahihoriaren osagaiak:

- 6 gorringo
- litro erdi esne
- 100 gr. azukre mehe
- bainila-hautsa
- Ura



Lehenbizi, ahihorea prestatu behar da. Horretarako gorringoak, azukrea eta bainila nahastu eta ondoren nahaskinari esnea bota apurka-apurka, hotzik, eta eragin aldi berean. Esnea neurritz bota behar da, ahihorea lodi egongo bada. Jarri dena Maria bainuan eta kendu sutatik irakin baino lehen. Beste toki batean hostore mehea jarri (aurrez prestatua). 5 bat zentimetroko diametroa duen objektu zilindriko erregaitz baten inguruan bildu behar da, eta zilindroaren muturrak estali gabe utzi. Labean egosiko dugu minutu batzuez; ondoren atera eta hozten utzi. Hotzik dagoela, zilindroak utzitako hutsunea lehen egin dugun ahihoreaz bete eta gainetik azukre mehea bota diogu.

Aitor Elicegui



Odoloste-pastela potxa-kremaduna

Mikel Barinagarrementeria

Osagaiak (4 laguntzat)

1 kg odoloste / 3 kg indaba zuri / Porru bat / Azenario bat / 4 patata egosi / Kalabazin bat / Tipula bat

Prestatzeko modua


Lehenengo, indabak egosiko ditugu porruarekin eta azenarioarekin, egosi normal bat balitz bezala. Egosita daudenean, turmixetik pasatuko ditugu, krema fina egiteko. Albo batean utziko dugu.

Kalabazina ere krema egingo dugu eta albo batean utziko dugu.

Zartagin batean, odolostea xehatuko dugu, kalabazin-krema erantsiko diogu eta dena nahastuko dugu. Bero dagoenean, moldean ipiniko dugu.

Aurkezteko modua

Plateraren erdian indaba-purea ezarriko dugu, gainean odoloste moldea ipiniko dugu eta apain-apain utziko dugu porru frijituarekin, mahaira ateratzeko prest.



Dietaurreko graduatutik
Kontaktu lantzek
Figurakiko dietaurrekoak
Lodienango markak

Ora kalera, 3. aldea. 91 452 28 18 ZAMUDIO

ZAMUDIOKO ESTANKOA

Tabakoak, tinbrea eta opariak

Tallerrak kalea. 5 ZAMUDIO
Tfnoa: 91 452 12 73



LARRABETZUKO ESTANKOA

Tabakoa, prentsa, loteriak, kiniela...

Andra Mari kalea, 1. LARRABETZU
Tfnoa: 944 558 110

LIBURUAK

Thailandiako Noodle izugarriak

Javi Cillero

Arg: Alberdania

Itsas abentura bat da Bilbon barrena. Thailandiako neskato batek antzinako formula magiko bat txarto erabili, eta uholde ikaragarri bat sortu du nahi gabe. Honela Thailandiako noodle edo espagietiez gainezka ageri dira Bilboko kaleak. Mundua hankaz gora jarri ondoren, ahalegin handia egin behar da dena berriro konpontzeko.

Baina bihotzak dio

Montoia Revuelta, Xabier

Arg: Elkarlanean

Hamahiru ipuin: hamiru herrialde-tan ibiliko gara liburuan zehar. Londresa au-pair doan ezpeletarra, Indian neba jonkiaren bila dabilen laudiarra, K2ra igo nahi duen mendizale nafarra, Afrikako portu batean dagoen marinel bizkaitarra... Gizon-emakume gazte eta sasoiko, haurrak nahiz zaharrak ditugu istorio hauetako protagonistak.

DISKOAK

Kantuz sortu naiz eta

Martikorena, Erramun

Erramun Martikorena IparEuskal Herriko kantu popularraren irudirik esanguratsuena dugu. Azken disko honetan aurkezten dituen kantuak eta poesiak olerkari ezagunek (Xalbador, Etxahun, Mendiague, Otsobi, Attuli, Haroztegy, Labeguerie, Lete, Sarasua, Badiola, Alkat, Larre...) idatzia dira. Hamabost kantuz osatua.

Arditurri


Beltran, Juan Mari

Lan hau musika tresnen ondare tradizionalan oinarritzen da. Zapore unibertsala apaindurik egon arren, euskal sena eta usaina dario. Diska honetaz gain esan behar da, Juan Mari Beltranek herri musika txokoa zabaldu duela Oiartzungo Ergoien auzoan. Bertan 400 musika tresna daude ikusgai.

DENBORA PASA

6 ezberdintasunak

Irudi bien artean aurkitu 6 ezberdintasun. Zein da Zamudioko benetako eleiza?



UMOREA

Oxigenoa jarri

Gizon batek andrea haurdun zuen, eta, klinikan zegoela, ea eduki ote duen edo kezkatuta, joan da korrika eta sartu da urgentzietara:

-Doktore jauna, doktore jauna, begira, nire andreak haurra izan du, eta ikusi nahi nuke.

-Nor zara?

-Xabier Martin.

-Bai, hirugarren solairuan.

Badoa da hirugarren solairura, eta beste ate bat ireki, eta...

-Doktore jauna, doktore jauna, nire andreak haurra izan du eta ikusi nahi nuke.

-Begira, zure andrea oso ondo dago. Ez da inongo arazorik izan, baina semeak...

-Zer pasa da, zer pasa da semearekin?

-Ez, pasa ez da ezer pasa. Oxigenoa jarri behar izan diogu.

-Dioooooo! Nik Xabier jarri nahi nion eta.

ESAERA ZAHARRA

URTE ASKOAN TXAPELA KASKOAN

Norbaiti, urteak betetzen dituenean, zorionak emateko esaera egokia. Luzaro bizi dadila esan nahi zaio urteak betetzen dituenari, edo konkretuki, urte askotan jantzi dezala txapela. Hainbat erabiltzen dugun "urte askotako" espresioaren antzekoa da.

AGENDA

Zamudio

-Trikitixa eguna ospatuko da datorren apirilak 21ean Zamudion.

-Emakumea eta oinarrizko eskubideei buruzko tailerra egongo da datorren apirilak 11tik aurrera Zamudioko Dorretxean. 20 orduko ikastaro hau ostegunetan izango da 19.00etatik 21.00etara eta ASTI elkarteko abokatu batek emango du.

-Erlaxazio ikastaroa izango da datorren apirilak 11tik aurrera Zamudioko Dorretxean. Ikastaroak 20 orduko iraupena izango du, eta ostegun guztietan emango da 19.00etatik 21.00etara. Ikastaroa ASTI elkarteko espezialista batek emango du.

-Bideo emanaldiak: Datorren apirilak 19an "Bichos" eta "Los padres de ella". Apirilaren 26an "Antz" eta "El pacto de los lobos".

-Erakusketak: Apirilaren 16tik Maiatzaren 2rarte " Insektuak"
Bonifacio

-Liburu eguna ospatuko da datorren apirilaren 23an. Hau ospatuz, Zamudioko Liburutegiak apirilaren 25rako, lpuin kontalari saio bat antolatu du Dorretxean arratsaldeko 18.00etan. Hiruki taldeak "Detektibeak" ikuskizuna antzeztuko du.

Sondika

-Komunikazio positiboa eta autoestimari buruzko ikastaroa izango da apirilaren 10etik ekainaren 19ra arte Sondikako Kultura Aretoan. Ordutegia 19.15etatik 21.15etara izango da.

–“Sondika Udala” futbito txapelketa izango da datorren apirilak 6tik aurrera. Finalurrekoak apirilaren 28an jokatuko dira herriko kiroldegian.

-Gazte zinearen emanaldiak datorren apirilak 5ean hasiko dira gaueko 20.00etatik aurrera. Emanaldiak 14 urtetik gorakoentzat izango dira.

–“Entreislas”, Jose Alberto Ubiarnaren argazkien erakusketa ikusgai dago Sondikako erakusketa aretoan datorren apirilak 12ra arte.

-Lidia de la Puebla eta Karmele Egañaren oleoak ikusgai egongo dira Sondikako erakusketa aretoan apirilak 15tik 30ra arte.

Derio

- "Protocolo y Saber Estar" ikastaroa izango da astearteetan arratsaldeko 17.00etan, Derioko eskolako DBH gelan.

Loiu

-Tennis ikastaroak burutuko dira apirilaren 13tik ekainaren 23ra. Taldeak, adina eta mailaren arabera antolatuko dira. Kurtsoaren prezioa 18 eurokoa da Loiu erroldatutakoentzat, eta 36 eurokoa besteentzat. Izena ematea apirilak 11ra arte egin daiteke.

-Apirilaren 19tik 21era Tarragonara (Port Aventura) irteera bat egingo da. Izena eman eta ordaintzeko epea: Martxoaren 21tik apirilaren 9ra bitartean izango da, udal bulegoetan, 9etatik 13,30tara. Kontsultatu prezioak.

-“Carretera Austral en Mountain Bike” dokumentala izango da martxoaren 21an 19.30etan Gaizka Aseginolaza eta Aitor Intxaurrearen eskutik, Loiuko Kultur Etxean.

Larrabetzu

-Baionako Bernat Etxepare lizeoko 20 ikasle Larrabetzun egongo dira datorren apirilak 5, 6 eta 7an. Hori Bai gazte elkar-teak antolatutako asteburu honetan, Larrabetzu eta Lapurdiko gazteek Bilbora joateko, Larrabetzu eta lapurtarren arteko pilota partidua ikusteko, bertso afarian parte hartzeko eta mendi ibilal-dia egiteko aukera izango dute.

-Larrabetzuri bira mendiz mendi izango da Apirilak 20an.

-“Bitartean heldu eskutik” poesia errezitala izango da Kirmen Uribe idazleagaz datorren apirilak 23an Liburuaren Eguna dela eta. Arrekikilik eta bihotz bakartien klubak antolatuta

Lezama

-Errioxara irteera izango da datorren maiatzak 1ean Enciso herrian dagoen Paleontologi Zentroa ikusteko. Izena emateko epea apirilaren 8tik 24ra arte izango da, liburutegian.

-Liburu azoka izango da datorren apirilak 26an arratsaldeko 16:00etatik 19:30etara.

-Tatuaje tailerra antolatu du Lezamako Udalak 12 eta 18 urte bitarteko gazteentzat, apirilaren 28an arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara. Izena emateko epea apirilaren 8tik 17ra arte izango da liburutegian.


**Industrias
Durrutti, S.A.**
 SEDE SOCIAL Y
 ADMINISTRACIÓN
 C/ ALFONSO DE
 GARCÍA, 10
 48170 ZAMUDIO (VIZCAYA)
 T. 944 521 500 - F. 944 521 505
 E. info@durrutti.com
 W. www.durrutti.com



HACKERS

CIBER

- ON LINE JOKUAK
- CHAT-AN
- WEB ORRIALDEAK

MIXEL ZARATE, 3 (CORREO JURRERATU SONDINA)
 TLFNO: 94 433 75 19

CB
Peluquería
Ana Belén
estetika - solariuma

Perretxiko, 4 - Iorja
Tfnos.: 94 403 68 60
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

**TORREKO
TXAKOLINA**



1883-TIK TXAKOLINGILEAK
TORRE BASERRIA
Aretxalde auzoa
48196 LEZAMA
Bizkaia


José Antonio Doñobeltza		94 473 15 34
Pedro Maria Doñobeltza		94 676 05 20
Bodega		94 455 62 39

ETXEKO KONPOKETAK TXORRIERRIN BERTON



ZAMUDIO - BILBAO
CONSTRUCCIONES
CESAR LOPEZ GUERRA
San Martin auzoa, 184
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

HARRI-BILBO



HARGINTZA OROKORRA

LEHIO-ERTZEKO HARRIAK - KANTO HARRIAK - BARLASAIK - MAILAK
ARKUAK - TXIMINIAK - HARRI-HORMITUAK - XAFLA-LANAK

HARRIOIA: DURANGO

LANTEGIAI
Kurtza Industrialdea, s/g
Tel. eta faxa: 94 452 10 71
48196 LEZAMA (Bizkaia)

ERAKUSTOKIA
Itxaropena, 2
Tel.: 94 674 33 40
48100 MUNGIA (Bizkaia)



UR KONPON
ITURGINAK

Jesus M^a Garcia Bilbao


Koliza Kalea, 1
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)
Tel.: 94 452 04 67
Fax: 94 452 04 67
Móvil: 607 74 67 50



ISURDINA/KO I-IA ALUMINIO/KO
FRAKUNTZA METALIKOAK

EGITURA ETA FORJA METALIKOAK

Tonkalegorri Ind.
Ezker Vial Central, 15 1^a planta
Tel. 944 555 073 - Fax: 944 555 051
48170 ZAMUDIO - BIZKAIA



TRASLUSATUAK - BANATZEKO TREKADAK - SABAIAK
ISOLAMENDU PROIEKTUAK - INTSONORIZAZIOAK
MANPARAK - ZORRI TEKNIKAK (GORATUAK)

Tonkalegorri ind., s/g.
48016 ZAMUDIO (Bizkaia)

Ureduak: 94 452 14 11 - 94 452 12 55
Faxa: 94 452 14 47

IEZPALA

ZARRATU ETA EGURREZKO
ERAIKUNTZAK
TRABESEN SALMENTA

Tel. 659 18 68 03 - 670 04 09 07
Faxa: 94 454 225



Remirez Instalaciones S.L.

ENPERAKO INSTALAZATILAK: ERREKATILAK, GARA ETA UKA

Iturririkotxe, 3
Tel/Faxa 94 455 82 96/606 39 33 46
rcinsa@euskaltel.net

48195 LAJUANETTU
(Bizkaia)

CONSTRUCCIONES ERREKA-ZARRA, S.A.

Román Artalejo Agesta

Udiarraga, 1 A Leiza
Tfn. - Fax: 94 648 09 50
Tfn. mobil: 616 93 75 68

48190 UGAO-MIRABALLES
(Bizkaia)



LAPIKO/S.L.

Larrazteko materialak - Dekontaminazio
TRATAMIENTOS

Osakidea, 67
Tel. eta faxa: 944 555 385

48196 LEZAMA
Bizkaia



kultura
sortzen dugu



BILBAO 700 • III MILENIUM



Sormena bultzatzen dugu eta zure eskuelan jarri zen ditugu obra
paregabeak, berriak eta klasikoak, behar-beharrezkoak.

Sortzailearen eskuetatik zure eskuetara.

Artea, pentsamendua eta musika guztiontzat. Mundu irekia.

Hau da gure kultura.

www.bbkk.es

bbkk 